

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Erriflearen Europako Elkarte

Ukrainako gerraren garapenaz ezer gutxi esan daiteke. Pablo Gonzalezen informazioaren falta hartzen dut; inguru horietan dabilen kazetari hoberena da. Polonian espetxeratuta eta bisitarik gabe jarraitzen du, eskubide eta askatasunen Europako herrialde batean. Argi dago paretik kendu nahi zutela, kontakizun ofiziala ezerk hondatu ez zezan. Baldintzarik gabe aske behar du izan.

Egia esan, Ukrainak pena handia ematen du, baina etsaiengatik baino gehiago, aliatuek egin diotenagatik. «Maidan»-etik ez du ezer aurreratu Europar Batasunarekiko integrazioan. Europako herrialderik pobreenetako bat izaten jarraitzen du, ustelenetako bat izateaz gain. Integrazioak milaka milioi euro inbertitzea ekarriko luke, eta EB ez dago horretarako prest. Nahiago du Ukraina linboan mantendu eta bere baliabideak ustiatzen jarraitu, bere emakumeen sabelak barne. Hala ere, bere aliatuek dagoeneko aurkitu dituzte baliabideak hura armatzeko eta irabazi ezin zuen gerra batera bultzatzeko. Hala ere, duela bi hilabete idatzi nuen bezala, bere aliatuak ez ziren sartuko (<https://labur.eus/nfbyM>).

Okerrena da orain bere kide amerikarrek ere ez diotela irteten uzten, aurreko astean zapuztu egin zietela bakeakordioa, harik eta beren helburu nagusia lortu arte: Europan zanga sakon bat zulatzea, Europar Batasunak Errusiari berriro begiratu ez diezaion.

Gatazka honek lezio handia uzten die mundu osoko nazio txikiei: eztabaida geostrategiko batean batzuekin edo besteekin aliatzea estrategia suizida da. Edozein unetan, aliantza batean parte hartzen duen herrialdea edo nazioa sakrifikatu daiteke, xake partida batean peoi soil gisa, auzitan dauden potentzien interesen arabera, Ukrainan gertatzen ari den bezala. Hori dela-eta, nazio txikiek ez lukete koalizioetan edo akordio militarretan

parte hartu behar, ia ezer ematen ez badiete –ez dute ezer egiterik armada handien aurka– eta oso gaizki atera daitezke haietatik. Gainera, aliantza militarretatik aldentzeko beste arrazoi on bat ere badago: jarrera neutrala mantentzea distentsioaren, desarmearen eta bakearen aldeko benetako apustua da. Hala ulertu zuen Suediako Gobernuak, eta hasieran zalantza batzuk izan ondoren, NATOrekin bat egingo ez zuela adierazi zuen.

Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan, ordea, ez da hausnarketa estrategikorik ikusten. Orain arte hartu duten erabaki nagusia, batez ere jende arruntari eragingo dioten zigorrez gain, gastu militarra BPGaren %2ra igotzea da. Europako Erriflearen Elkarte eratutzat jo beharko da. Charlton Heston buru izan zuen elkartearen filosofia bera: defendatzea armatzea da. Inolako

Gastu militarra BPGaren %2ra igotzea da erabaki nagusia. Europako Erriflearen Elkarte eratutzat jo beharko da. Charlton Heston buru izan zuen elkartearen filosofia bera: defendatzea armatzea da

hausnarketarik ez mehatxuei eta horiek murrizteko edo minimizatzeko moduari buruz; arma gehiago behar dira, hori da dena. Zergatik %2a? Gehiago ez da behar? Edo askoz gutxiago? Nola iristen da hain zifra biribilera? Edo garrantzitsuena gastatzea izango da, eta gero gerokoak.

Izan ere, ez dakit Bruselako burmuinak konturatu diren ala ez, baina Ukrainako gerra Europako gerra da, eta kontinentea armaz betetzea katastrofe baten preludea baino ezin da izan. Gutun batean preso dagoen lagun batek Europar Batasuna Austria-Hungariako Inperioarekin alderatu zuen. Analogia ezin hobea iruditu zait. Erretolika triunfalista gorabehera, badirudi Europar Batasunak berdin amaituko duela. •